



Zeharkako prestakuntza-plana EUDEL-IVAP-Foru Aldundiak



Tokiko administrazioaren **BERRIKUNTZA:** **PRAKTIKAN IPINTZEA**

IKASTURTEKO PROGRAMA

2014

www.eudel.net



UDAL MODERNIZAZIORAKO ETA BERRIKUNTZARAKO PRESTAKUNTZA, 2014

EUDELeK, IVAPEk eta Foru Aldundiek batera antolatu duten 2014rako Zeharkako Prestakuntza Planak arreta **modernizazioan** eta **berrikuntzan** jartzen jarraitzen du, udalerrietarako interesgarriak diren eta alde zuzenetik udal bakoitzean TBA-Tokiko Berrikuntzako Agenden bidez zehaztu diren proiektuak abiarazteko.

Horretarako, datorren urtean zehar **8 ikastaro eta tailer** eskainiko dira HAEE/IVAPEk Bilbon eta Donostian dituen egoitzetan. Prestakuntzaren **gaiek** zenbait eremu barne hartuko dituzte, tokiko gobernuak berrikuntzan, gardentasunean eta herritarrekiko harremanetan duten estrategia indartzeko funtsezkoak direnak. Hona hemen **landu beharreko arloetako** batzuk: prozedurei buruzko eskuliburuak, administrazio lanen sinplifikazioa, zerbitzuen benetako kostuaren kalkulua, kudeaketa eta aurrekontu gardenetarako plana, sare sozialak eta 2.0 komunikazio plana, herritarrentzako arreta eta komunikazioa, eta udalerriko markaren estrategia, besteak beste.

Eduki teorikoez gain, ikastaroen eta tailerren metodologian lehentasuna emango zaio **kasu praktiko**en analisari, eta ikasleak parte hartzera bultzatuko dira, **taldeko dinamiken** bidez.

Prozesuetan eta prozeduretan bizkorragoa eta eraginkorragoa izateaz gain, herritarrekiko harremanetan, oro har, gardenagoa den nahiz hurbilago dagoen udal erakundea sustatu ahal izateko, berrikuntzari buruzko prestakuntza beharrezkoa da. Informazio-teknologiak, aldaketarako eragile gisa erabilia, bidea erraztu dezake berrikuntzak eraginkortasuna eta herritarrekiko hurbiltasuna udal jardueraren ardatz izango duten administrazio eredu berrietara eta udal gobernuen modu berrietara eramateko.

Ikastaroetan izena emateko:

Matrikula egiteko, eskabidea bidali behar zaio Udaleko prestakuntza koordinatzaileari, eta horrek honako helbide honetara bidaliko du:

prestakuntza@ivap.es

IVAPEk ikaslea onartu den egiaztatuko du.

Izen-ematea: urtarrilaren 17a baino lehen
prestakuntza@ivap.es



Izen-ematea: otsailaren 10a baino lehen
prestakuntza@ivap.es

3. Benetako kostua kalkulatzeko analisiari eta metodologiari buruzko ikastaroa

Edukia: Edozein zerbitzu publikotako kostuen analisia egiteko ezagutzak eta tresnak, emandako zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzeko asmoz.

Egunak: 1. edizioa: martxoak 20 eta 21
2. edizioa: martxoak 27 eta 28

Tokia: 1. edizioa: Donostiako HAEE/IVAP (San Bartolome kalea, 28)
2. edizioa: Bilboko IVAP/HAEE (Errekalde zumarkalea, 18)

Prezioa: 104€

Izen-ematea: otsailaren 10a baino lehen
prestakuntza@ivap.es



4. Administrazio lanak sinplifikatzeko tailerra

Edukia: Administrazio arloko berrikuntzari buruzko teknikak eta praktikak, prozesuak eta zerbitzuak sinplifikatzeko, kostuak murrizteko eta administrazio elektronikoa finkatzeko.

Egunak: apirilak 2, 3 eta 4

Tokia: Bilboko HAEE/IVAP (Errekalde zumarkalea, 18)

Prezioa: 132€

Izen-ematea: martxoaren 10a baino lehen
prestakuntza@ivap.es

5. Gizarte-sareei buruzko ikastaroa, Gobernu Irekiaren estrategia gisa

Edukia: Sektore publikoan sare sozialak erabiltzearen abantailak eta eragozpenak ezagutzea; posizionatzeko eta izen ona lortzeko estrategiak ezagutzea; hainbat arlotan (giza baliabideak, baliabide ekonomikoak, estrategia...) beharrianak antzemateko gai izatea eta 2.0 komunikazio plana prestatzea.

Egunak: maiatzak 7, 8 eta 9

Tokia: Bilboko HAEE/IVAP (Errekalde zumarkalea, 18)

Prezioa: 132€

Izen-ematea: apirilaren 11 baino lehen
prestakuntza@ivap.es

6. TBA tailerra: udalerri baten markaren kudeaketa estrategikoa

Edukia: Udalerriaren marka-irudia sortzeko eta kudeatzeko gakoak eta tresnak. “Hiri-Marken” garrantzia eta beharrezakoa.

Egunak: ekainak 4, 5 eta 6

Tokia: Donostia. HAEE/IVAPeko egoitza (San Bartolome kalea, 28)

Prezioa: 132€

Izen-ematea: maiatzaren 9a baino lehen
prestakuntza@ivap.es

7. TBA tailerra: Kudeaketarako eta aurrekontu gardenetarako plana

Edukia: Urtebete egin beharreko helburuak, proiektuak eta jarduerak dokumentatzea aurrekontu orokorreari lotutako plan batean biltzeko. Bi tresnak modu parte-hartzailean prestatu behar dira, eta bai udal erakundeak bai herritarrek erraz ulertzeko modukoak izan behar dira.

Egunak: ekainak 12, 19 eta 26

Tokia: Bilboko HAEE/IVAP (Errekalde zumarkalea, 18)

Prezioa: 170€

Izen-ematea: maiatzaren 9a baino lehen
prestakuntza@ivap.es

8. Jendeari arreta egiteko ikastaroa Harremanen bidezko komunikazioaren garapena

Edukia: Komunikazio eraginkorraren ezaugarriak ezagutzea eta, herritarrentzako arretan zein barrutik erakundearen barruan, komunikazioak hobetzeko gaitasunak garatzea.

Egunak: 1. edizioa (gaztelaniaz): urriak 1, 2 eta 3

2. edizioa (euskaraz): urriak 1, 2 eta 3

Tokia: 1. edizioa: Bilboko HAEE/IVAP (Errekalde zumarkalea, 18)

2. edizioa: Donostiako HAEE/IVAP (San Bartolome kalea, 28).

Prezioa: 132€

Izen-ematea: irailaren 12a baino lehen

prestakuntza@ivap.es

